

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZKOITIKO UDALA

*Iragarkia*

Jendaurreko informaziorako legezko epea igaro ondoren eta erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez, 2022ko Ordenantza Fiskalen aldaketa, udal jabari publikoa okupatzeagatiko tasa arautzen duena, laginketak edo zangak irekitzeagatiko tasa behin betikoz onartu da, ondoko testuaren arabera:

6. *Udal-jabari publikoa okupatzeagatiko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala.*

6.7. ATALA. Laginketak edo zangak irekitzeagatik

6. *Laginketak edo zangak irekitzeagatik.*

1. Erabilera publiko lokaleko lursailetan –baita errepide eta gainerako bide publiko lokaletan ere– edonolako zangak, zundaketak edo zuloak ireki aurretik, kaineriak, hodieriak edo bestelako instalazioak ezartzeko eta konpontzeko, edota bide publikoko galtzadan edo espaloietan inolako konponketak egiten hasi aurretik, Udal Administrazioak fidantza bat ezartzea exijituko du, jabari publikoa bere jatorrizko egoerara ekartzeko edota egindako obrek sortutako kalteei aurre egin ahal izateko.

2. Fidantza hori jartzerakoan, honakoak hartuko dira kontuan:

1.— Fidantza bakoitzak, soil-soilik obra bakar bati dagozkion betebeharrak bermatuko ditu.

2.— Obra baterako lizentzia entitate bat baino gehiagok eskatzen badute, solidarioki edo mankomunatuta, fidantza hori bat eta bakarra izango da entitate guztientzako.

3.— Fidantza dirutan edo banku-abalaren bitartez jar daiteke.

3. Lurzoru publikoaren okupazioa bukatutakoan edo lurzoru publikoan baimendutako instalazio edo obrak bukatutakoan, dena hasieran zegoen bezala utziko dela bermatzeko, baimena eman aurreko agiri moduan, fidantza jartzeko eskatuko da, eta kasu bakoitzean egindako kaltea ordaintzeko erabiliko da. Hauek dira eskatuko diren fidantzak:

— Orokorrean: 500,00 €.

— Partikularrek eta komunitateek zangak irekitzea: 500,00 €.

— Energia elektrikoa, gasa eta telekomunikazio banatzen duten enpresek zangak irekitzea: 2.000,00 €.

— Urtean zehar enpresa banatzaileek hiru jarduketa baino gehiago egin behar badituzte, urteko 6.000,00 euroko fidantza/abala jartzea izango lukete.

— Obra berriengatik zangak irekitzea: 2.000,00 €.

— Egitura lagungarrien instalazioak:

5 egun arte: 500,00 €.

5 egunetik gora: 1.200,00 €.

AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Anuncio*

Habiendo finalizado el plazo de información pública de la modificación de las Ordenanzas Fiscales para 2022, reguladora de la tasa por ocupación del dominio público municipal por apertura de muestras zanjas sin que se haya presentado reclamación alguna, se considera aprobado definitivamente según el siguiente texto:

6. *Ordenanza reguladora de la tasa por ocupación del dominio público municipal.*

APARTADO 6.7. Apertura de calicatas o zanjas

6. *Apertura de calicatas o zanjas.*

1. Antes de realizar cualquier apertura de zanjas, calicatas y calas en terrenos de uso público local, inclusive carreteras, caminos y demás vías públicas locales, para la instalación y reparación de cañerías, conducciones y otras instalaciones, así como cualquier remoción de pavimento o aceras en la vía pública, la Administración Municipal exigirá el depósito de una fianza para responder de la reposición del dominio público a su estado original y de los desperfectos de toda índole que pueda suponer la ejecución de las obras.

2. En la constitución de dicha fianza, se tendrá en cuenta lo siguiente:

1.— Cada fianza únicamente podrá garantizar las obligaciones correspondientes a una sola obra.

2.— Cuando la licencia para una obra se solicite solidaria o mancomunadamente por varias entidades, la fianza será única y conjunta para todas.

3.— La fianza podrá constituirse en metálico o mediante aval bancario.

3. Con el fin de garantizar que tras la finalización de la ocupación en suelo público o tras la finalización de las instalaciones u obras autorizadas en suelo público éste quede en su estado original se solicitará, como documentación previa a la autorización, el depósito de fianza, que en cada caso servirá para la reparación del daño realizado. Las fianzas que se solicitarán serán las siguientes:

— Con carácter general será de 500,00 €.

— Aperturas de zanjas por particulares y comunidades: 500,00 €.

— Apertura de zanjas por empresas distribuidoras de energía eléctrica, gas y telecomunicaciones: 2.000,00 €.

— En caso de que las empresas distribuidoras vayan a ejecutar más de tres acciones, podrán depositar una fianza/aval de 6.000,00 euros anuales.

— Apertura de zanjas por obras nuevas: 2.000,00 €.

— Instalaciones de estructuras auxiliares:

Hasta 5 días: 500,00 €.

Más de 5 días: 1.200,00 €.

Salbuespen kasuetan, alkateak eskubidea izango du, dekretu bidez fidantza aldatzeko eta gehienez 100.000,00 eurora igotzeko, egin behar den okupazioaren tamainaren arabera. Kasu hauetan Udal bulego teknikoak estimaturiko aurrekontuaren % 50a ezarri daiteke.

Era berean, Udalak ahalmena izango du fidantza hori erabiltzeko, obrek eragindako udal espazioa ez bada obrak egin aurretik zegoen bezala gelditzen.

002. TASA

Metro lineal edo metro lineal zati bakoitzeko eta egun bakoitzeko:

	€
Metro baterainoko zabalera duten laginketak edo zangak irekitzeagatik .....	0,62
Ustiapena zeharbide batean egiten bada .....	0,72
Ustiapenak udalak emandako epea gainditzen badu, kuota horiek % 400 igoko dira.	

Azkoitia, 2022ko maiatzaren 31.—Javier Zubizarreta Zubizarreta, alkatea. (3779)

Excepcionalmente, se reserva mediante Decreto de Alcaldía el derecho de modificar la fianza hasta un máximo de 100.000,00 euros, dependiendo de la envergadura de la ocupación a realizar. En estos casos, se podrá imponer el 50 % del presupuesto estimado por el Departamento técnico Municipal.

A su vez, el Ayuntamiento se reserva la potestad para la ejecución de dicha fianza si el espacio municipal afectado por la ocupación no queda en el estado original previo a la ocupación.

002. TASA

Por cada metro lineal o fracción y día:

	€
Apertura de calicatas o zanjas, de hasta 1m de ancho .....	0,62
Cuando el aprovechamiento tenga lugar en travesías .....	0,72
Cuando el aprovechamiento exceda del plazo concedido por el Ayuntamiento, las cuotas anteriores quedarán elevadas al 400 %.	

Azkoitia, a 31 de mayo de 2022.—El alcalde, Javier Zubizarreta Zubizarreta. (3779)